



Arartekoaren 2019S-1609-17 Ebazpena, 2019ko apirilaren 2koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki nahi dio indarrik gabe utz dezan prestazioak eteteko ebazpena, erakunde honek uste baitu posiblea izango zatekeela enplegu-eskaera epez kanpo onartzea kasu honetan, eta, horrenbestez, iraungitze ebazpena berrikusi dezan ere iradoki nahi dio. Halaber, Arartekoak 2017ko txosten-diagnostikoan emandako gomendioa errepikatu nahi du, alegia, prestazioa eskatzea ezinezkoa izan zen urtea zenbatzeko kontuan hartu beharreko egunak bat egin dezan prestazioaren ordainketa bertan behera utzi zen egunarekin.

Aurrekariak

1-. Herritar batek kexa bat aurkeztu du Arartekoan. Horren bidez, interesdunak alegatu du ez dagoela ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi izanarekin.

2017ko martxoaren 21ean, prestazioak iraungitzeko prozedura hasi zuen Lanbidek, kexagileak aipatu prestazioak indarrean zeuden bitartean (bi urteko indarraldian) bi etenaldi izan zituela ulertu zuelako. Hain zuzen ere, ebazpena honela arrazoitu zen:

“Laguntzako bi etenaldi metaketagatik:

-2016/07/19an: Prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen eta ondoren adierazten diren gertakariak ez jakinaraztea, sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta gehieneko hamabost eguneko epean.

-2017/01/23an: 2016/10/03an enplegu-eskaerako baja egoteagatik.”

2-. Bigarren etenaldia 2017ko urtarrilaren 23ko ebazpenaren bidez erabaki zen eta enplegu-eskaera 2016ko urriaren 3an berritu ez izana zen horren arrazoia. Kasu horretan, interesduna ez zegoen ados prestazioak eteteko erabakiarekin, 2016ko irailaren 22tik urte bereko azaroaren 20ra soldadura ikastaro bat egin zuelako. Hain zuzen, Lanbideren webguneaz baliatu zen ikastaro horretan izena emateko. Kexagileak baieztatu duenez, honako hau jakinarazi zioten erreferentziako bulegoan, hots, Basaurin dagoen Uribarriko bulegoan: interesdunak ez zuela eskaera berritu behar, baldin eta prestakuntza-ikastaro bat egiten ari bazen. Horrenbestez, kexagilea bere betebeharrak betetzen ari zen, bere ustez.

Kexagileak alegazioak aurkeztu zituen Lanbiden 2016ko abenduaren 22an (2016/389299 erregistro-zenbakia duen agiria), eta, horiekin batera, aipatu





soldadura ikastaroa egin ondoren jasotako ziurtagiriaren kopia bat. Ebazpenaren berri izandakoan, kexagileak adierazi zuen berriro ez zegoela ados enplegu-erakunde autonomoan aurkeztu zuen prestazioak berritzeko eskaera deskribatzeko den idatz-zatiarekin.

3-. 2017ko martxoaren 21ean, Lanbidek prestazioak iraungitzeko prozedurari eman zion hasiera. Izan ere, erakundeak uste zuen kexagilea prestazioak azkentzeko arrazoi batean sartu zela, bigarren etenaldia ebatzi ondoren.

Interesdunak alegazioak aurkeztu zituen 2017ko apirilaren 4an. Alegazioez gain, agiriak entregatu izanaren ziurtagiriak, Lanbidek emandakoak, kexagileak hainbat agiri entregatu zituela jaso du: DARDE agiria berritu behar zuen egunetan soldadura ikastaro bat egin ondoren jasotako egiaztagiria, eta ikastaroa egindakoan —2016ko abenduaren 5ean, zehazki— DARDE agiria berritu izanaren ziurtagiria.

4-. Aurkeztutako alegazioak gorabehera, 2017ko apirilaren 21ean, prestazio biak iraungitzea erabaki zuen Lanbidek:

“Prestazioaren indarraldiaren bi urteko epea ez betetzeagatik bi aldiz gabetu izana.

Etxebizitza Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea amaitu egiten da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta amaitzen denean, haren osagarri baita.”

Kexagilea prestazioak iraungitzeko erabakiarekin ados ez zegoenez, 2017ko maiatzaren 18an, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen, berari dagokion Lanbide bulegoan.

5-. Mahai gainean jarri den kexa behar bezala izapidetzeko, Arartekoak informazio-eskaera bidali zion Lanbideri, eta, horren bidez, 30 eguneko epean kexaren xedeari lotutako zenbait inguruabarren berri emateko eskatu zion.

Zehazki, honako kontu hauek galdetu ziren:

- a) *Zure iritzia, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.2. artikulua aplikatzearen inguruan, artikulua horrek, enplegu-eskaera berritzeko betebeharrari dagokionez, salbuespenak onartzen dituela aintzat hartuta.*
- b) *Lan-jarduera bat hasi izanari buruzko dokumentazioa eskatzeko arrazoiak.*
- c) *Kexagileak pasa den maiatzaren 18an aurkeztu zuen aukerako berraztertze-errekurtsoaren egoera.*





- d) Azkentzeren ondorioak indarrean jartzeko eguna, prestazioen ordainketak 2017ko urtarrilean bertan behera utzi zirela kontuan hartuta.
- e) Kexaren xedearekin erlaxionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.

6-. Azkenik, Lanbideren idazki bat sartu da erakunde honen erregistroan. Horren bidez, erakunde honek egindako eskaerari erantzunez, azaldutako kontuei erantzun die. Lanbideko zuzendari nagusiak egindako txostenak honako hau dio:

(...)

2016-11-29an Lanbidek entzunaldi-izapide bat egin zion XXX XXX jaunari, 2016-10-03az geroztik enplegu-eskatzaile gisa baja egoeran zegoela hautematean. 2016-12-22an alegazioak egin zizkion entzunaldi-izapide horri. Lanbidek haiek ezetzi eta eteteko ebazpena eman zuen 2017-01-23an. XXX XXX jaunak alegatzen zuen ez zuela bere eskaera berritu Lanbideren ikastaro batean egiten ari zelako. **Egin zuen ikastaroa ez zen Lanbiderena Hobetuzena baizik eta, beraz, bere enplegu-eskaera aktibo eduki behar zuen¹. Erabiltzaile guztiei jakinarazten zaie Lanbideren ikastaro bat egiten dutenean, ez dela beharrezkoa euren enplegu-eskaera berritzea, baina bai egin ditzaketan gainerako ikastaroen kasuan.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko ebazpena eman zuen 2017-01-23an eta horren aurka XXX XXX jaunak berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu zuen 2017-03-13an.

(...)

Prestazioaren bi urteko indarraldian betebeharrak ez betetzeagatik ezarritako bi eteteen ondorioz, 2017-04-21eko ebazpenaren bidez azkendutzat jo zen diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidea; maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 38. artikulua xedatzen duenez, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen onarpena mantenduko da hura onartzeko kausek dirauten, prestazioa eskuratzeko eskatzen diren baldintza ekonomikoak edo bestelako baldintzak betetzen diren eta Dekretu horretan aurreikusitako betebeharrak betetzen diren bitartean. Interesdunak ez zituen betebeharrak horiek birritan bete titularra denetik.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoak, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatu zuenak, 28 artikuluan, eta maiatzaren 5eko 147/2010 Dekretuak, Diru-

¹ Arartekoak azpimarratua



sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoak, 49. h) artikuluan, diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzeko kausen artean, prestazioaren bi urteko indarraldian ez betetzearen ondoriozko bi etete egotea ezartzen dute.

*2016-07-19ko eta 2017-01-23ko eteteko bi ebazpenak irmoak dira, berraztertzeko errekurtsua aurkezteko epea izan zutelako. **Azkentzea (ebazpen hori errekurritu da) dakarren egitatea bi etete egotea da.** Frogatuta geratu da egitate hori eta, beraz, 18/2008 Legeak 28.1.e) artikuluan eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoak, 49. h) artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da.”*

Hortaz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak dauzkagula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1-. Enplegu-erakunde autonomoak interesdunaren prestazioen ordainketa eten zuen bigarren aldiz, uste baitzuen pertsona horrek ez zuela 18/2008 Legearen 19. artikuluan xedatutako betebeharra bete. Artikulu hori diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren betebeharrei buruzkoa da.

Hala, 18/2008 Legearen 19.1. artikulua honako hau xedatu du:

“Titularra eta lan egiteko adina duten haren bizikidetzaren unitateko kideak lanerako prest egotea. Salbuespen izango dira honako kasu hauek:

–Erabateko baliaezintasuneko pentsioen titularrak.

–23 urtetik beherakoak, ikasketa akademiko aratuak egiten ari badira.

–Bazterkeria-egoera larrian egonik, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta/edo enplegu-zerbitzuen iritziz lan-merkatuan sartzeko moduan ez daudenak.

Lanerako prest egote horretan konpromiso hauek ere sartzen dira: etengabe izena emanda egotea enplegu-eskatzaile gisa; ez uko egitea enplegu egoki bati; borondatezko bazarik ez hartzea enpleguan, ez behin betikorik ez aldi baterakorik, eta ez baliatzea lan-eszedentziaz, justifikatutako arrazoi larririk ez badago.”

Betebehar bera Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 2010eko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.2.b) artikuluan dago xedatuta.





Lanbideko zuzendaritza nagusiak Arartekoari bidalitako txostenaren arabera, bigarren etenaldiaren arrazoia honako hau izan zen: *“Egin zuen ikastaroa ez zen Lanbiderena Hobetuzena baizik eta, beraz, bere enplegu-eskaera aktibo eduki behar zuen”*. Eta jarraitzen zuen: *“Erabiltzaile guztiei jakinarazten zaie Lanbideren ikastaro bat egiten dutenean, ez dela beharrezkoa euren enplegu-eskaera berritzea, baina bai egin ditzaketan gainerako ikastaroen kasuan.”*

Araudiaren transkripzioan ikus daitezkeen legez, araudi horrek ez du prestakuntza-ikastaroak egiteari lotutako salbuespenik jaso, hain zuzen, DARDE agiriaren eskaera aldizka berritzeko betebeharra ez betetzen jarraitzea justifikatzen duen salbuespenik. Horrez gain, [2017. urteko Lanbideren Irizpideei buruzko agiriak](#) ez du informazio askorik gehitu gai horren inguruan.

Lanbideren webgunean eskuratu daitezkeen beste agiritan, zehazki, enplegu arloari lotutako galdera ohikoen atalean, hainbat arrazoi zehaztu dira. Arrazoi horiek egiaztatuko balira, bidezko arrazoiak izango lirateke enplegu-eskaera berreskuratu dadin eskatu ahal izateko, nahiz eta eskaera epearen barruan berritzeari ez ekin.

Lanbideren webgunean beran jasotako informazioaren arabera, eskaera ez berritzeko arrazoia justifikatuta dagoenean «baja» emanda dagoen eskaera bat berreskuratu dadin eskatzea posiblea izateari buruzko galderari dagokionez, titularra den pertsonak berreskuratze eskaera aurkeztu behar du dagokion Lanbide bulegoan, bai eta eskaera ez berritzeko arrazoia egiaztatzen eta justifikatzen duen agiria ere.

Horri dagokionez, aipatu beharra dago Lanbideren aipatu agirian [«Ez berritzeagatiko bajaren ostean eskaera berreskuratzea justifikatzen duten arrazoen zerrenda»](#) izenekoan, ageri den inguruabarretako bat honako hau dela: *“Enplegu Zerbitzu Publikoek sustatutako prestakuntza ekintzak egitea (enplegurako prestakuntza profesionala, Enplegurako Politika Aktiboari buruzko Programak) edo enplegu-eskaintzaren bati erantzutera aurkeztea. Ekintza horiek egiaztatu beharko dira soilik Enplegu Zerbitzu Publikoan zuzenean egin ez badira. Langileak eginkizun horiek betetzeko nahitaezko denboraz justifikatuko ditu.”*

Hala ere, Lanbideko zuzendari nagusiak egindako informazio-idatziaren bitartez erakunde honi igorritako irizpidea, hau da, Hobetuz patronatuak ematen duen edo Lanbidek ematen duen ikastaro bat egitearen artean aldea dagoela bermatzen duen irizpidea, ez da aipaturiko agirian jaso. Agiri horretan, **«Enplegu-zerbitzu publikoek sustatutako prestakuntza-jarduerak egitea»** aipatu da; ildo horretatik, gogoratu





beharra dago HOBETUZ, edo [Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa](#), hainbat entitate sinatzailek osatutako patronatua dela. Entitate horien artean, hainbat sindikatu eta patronatuz gain, Eusko Jaurlaritzza bera da aipatzekoa. Haien helburua da «*EAEn gauzatzen den langileen etengabeko lanbide prestakuntza guztiaz arduratzea*».

Arartekoaren ustez, Lanbidek ulertu ahalko zukeen kexagileak emandako arrazoiak justifikazio egokia zirela enplegu-eskaera berreskuratzeari ekiteko, etenaldia gertatu gabe. Izan ere, interesdunak azaldu eta justifikatu zuen zergatik ez zuen enplegu-eskaera aurreikusitako egunean berritu, uste baitzuen Hobetuzek sustatutako ikasturte bat egitea Lanbidek sustatutako ikasturte bat egitearen parekoa zela, besterik gabe.

Horrez gain, honako hau hartu behar da kontuan: kasu honetan gertatu den legez, hots, prestazioa jasotzeko eskubidea indarrean zegoen aldi batean beste etenaldi bat gertatu izanari lotutako kasuan, bigarren etenaldi horren eraginez, ezinezkoa da eskubide hori urtebetez eskatzea.

Horrenbestez, Arartekoak errepikatu du garrantzitsua dela urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4.1. artikuluan xedatutako proportzionaltasun-printzipioa betetzea: *“Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, proportzionaltasun–printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak baztertuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka.”*

Arartekoak uste du Lanbidek enplegu-eskaera berritu ahalko zukeela aurretik aipatutako inguruabarretan, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen bigarren etenaldiak dakartzan inplikazioak aintzat hartuta.

Halaber, nabarmendu da beharrezkoa dela enplegu-eskaera aktibo mantentzeko betebeharrari buruzko informazioa hobetzea horrelako kasuetan, bai gizarteratzerako hitzarmena sinatuz, bai gainerako bideetan, besteak beste, arreta emateko bulegoetan edo webgunean.





Izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko irizpide eta betebeharrak zehatz batzuk bete behar dira, eta, zenbait kasutan, informazioa ez dator bat arauzko aurreikuspenekin, edo informazio hori osagabea edo aski ez da. Erakunde honek aipatutako 2017ko diagnostikotxostenean adierazi zuen legez: *“Ezinbestekoa da prestazioetarako eskubideari eusteko egin behar diren jardueri buruzko informazio egokia ematea, bai eta datu pertsonalen inguruko baimena emateak zer-nolako irismena duen azaltzea ere.”*

2-. Bestetik, adierazi dugunez, aztergai dugun kasuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeaz batera, prestazio hori iraungi zitzaien egunetik zenbatzen hasita urtebetez hura berriro eskatzea debekatu zaio interesdunari, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Araudiak honako hau adierazi du, zehatz-mehatz: *“Prestazioa azkentzeko arrazoia betebeharrak ez betetzea edo arau-hausteak egitea izan bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu, edozein izanik ere modalitatea, **eskubidea azkendu den unetik** urtebete igaro arte. Ondorio bera ekarriko du artikulua honen 1.d eta 1.e paragrafoetan azaldutako arrazoiengatik azkentzen bada eskubidea.”*

Lanbideren irizpideei buruzko dokumentua ere zorrotza da 8.4 atalean honako hau nabarmentzean: *“Zigor-urtea iraungitze-ebazpenaren egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.”*

Hala ere, kontuan hartuta normalean hainbat hilabete igarotzen direla bigarren etenaldia ebazten denetik iraungitze prozedurari hasiera ematen zaion arte, erakunde honek zehapena indarrean dagoen hilabeteak zenbatzeko moduari buruzko hainbat iradokizun aurreratu ditu.

Alde horretatik, Arartekoak gai horri buruzko iritzia eman du 2017ko diagnostikotxostenean. Dokumentu horrek nabarmendu du garrantzitsua dela abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikuluan xedatutako egoerak iraungiko direla adostutako eguna argitzea, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzea bidezkoa ez den urtea zenbatzeari hasiera noiz emango zaion zehaztea.

Hauxe zioen, zehazki: *“Data horrek bat egin beharko luke prestazioa ordaintzeari **uzten zaion hilabetearekin; bestela, aurretik prestazioa etetea eta prestazioaren ordainketa etetea erabaki bada, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3***





artikuluari ezarri dena baino gehiago luzatuko litzateke prestazioa berriro eskatzeko ezintasuna.”

Izan ere, prestazioa indarrean zegoen bitartean (bi urteko indarraldian) bi etenaldi gertatzearen ondorioz egin bada iraungitze bat, bigarren ebazpena eman denetik azkentze-prozedurari hasiera eman arte igarotako denbora, normalean, aldakorra da; zenbait kasutan —adibidez, aztergai dugun kasu honetan—, hiru hilabete igaro dira egun batetik bestera —kasu honetan, bigarren etenaldia 2017ko urtarrilaren 23an gertatu zen, eta urte bereko apirilaren 21ean, azkentze-ebazpena eman zen—. Horrenbestez, aldi iragankor bat hasiko da horrelako kasuetan, eta aldi horren iraupena zehaztugabea da, beti; gainera, iraungitze prozedurari hasiera noiz emango zaion erabakiko duen administrazioaren esku geratuko da. Aldi horretan zehar, prestazioak eskatzen dituen pertsonak ez du diru-sarrerarik lortuko, baina, era berean, aldi hori ez da aintzat hartuko diru-sarrerak bermatzeko errenta berriro eskatzea ezinezkoa den 12 hilabeteak zenbartzeko orduan.

Aipatu beharra dago etenaldien iraupenari buruzko 147/2010 Dekretuaren 45. artikulua, kasu honetan artikulua horren analogiaz; izan ere, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzeko buruzko azaroaren 24ko 4/2011 Legeak sartutako erreformaren ostean, dekretu horren 26.2 artikulua ezarri du gizarte babeseko euskal sistemari dagozkion prestazioak eteteko gehieneko epea 12 hilabetekoa dela: *“1.- Ordainketa **etetea eragin duten zirkunstantziak irauten duten bitartean jarraituko du eteteak**, gehienez ondoz ondoko hamabi hilabeteko aldirako, eta hori igarotakoan, prestaziorako eskubidea azkenduko da. (...)”*

Aurretik aipatutakoa ikusirik, egiaztatu daiteke araudiak soilik aurreikusi duela prestazioaren ordainketa urtebetez utziko dela bertan behera. Hala ere, prestazioa indarrean dagoen bi urteko indarraldian bi etenaldi gertatzearen ondorioz —betekizunak ez betetzeagatik— diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea iraungi dadin ebatzi den prozeduretan —18/2008 Legearen 28.1e) artikulua—, espediente honen kasuan gertatu den legez, Lanbidek iraupen bat ezarri dio prestazio nagusiaren ordainketa bertan behera geratu den aldiari. Izan ere, araudian aurreikusitako urteari prestazioaren ordainketa bertan behera geratu zen aurreko aldia gehitu behar zaio. Ez dago argi noiz amaituko den aldi hori.

Beste zenbaitetan adierazi den legez, betekizunak ez betetzeagatik araudiak xedatutako erantzuna da prestazioaren ordainketa bertan behera uztea, baina iraupena ez dago zehaztuta prestazioak eteteko arrazoi guztien kasuan. Diru-





sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea iraungiko da eta ezinezkoa izango da prestazio hori urtebetez jasotzea honako kasu honetan: bi etenaldi gertatzen badira, izandako jokabideen baliorik eza gorabehera. Erakunde honek adierazi du ez dagoela proportzio egokirik ez-betetzearen larritasunaren eta jasotako erantzunaren artean.

Araudia aldatzeko erakunde honek bultzatu dituen proposamenen artean, aipatzekoa da prestazioaren etenaldiak edo iraungitzeak mailakatzea, honako ezaugarri hauen arabera: betekizunak nahita edo behin baino gehiagotan ez badira bete; jaso behar ez zen zenbatekoa jaso bada; familiaren inguruabarren arabera, bereziki onuradunaren egoera ekonomikoaren arabera; edo betekizuna berriro betetzen ez bada.

Lanbidek mantentzen duen jarrera dela eta, zehapen bera aplikatuko da espediente honetan aztergai dugunak baino larriagoak izan daitezkeen jokabideak izateagatik, edo prestazioaren ordainketaren etenaldia motzagoa izango da, betiere diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea iraungitzeko ebazpena eman zen egunaren arabera. Aipatu den legez, espediente honen kasuan, prestazioen ordainketa 2017ko urtarrilean eten zen, modu eraginkorrean, eta iraungitze ebazpena ez zen urte bereko apirilera arte eman.

Azkenik, azpimarratu behar da Arartekoak hainbat ebazpenetan eta Lanbiderekin izandako zenbait bileratan nabarmendu duela ziurgabetasun-tarte hain handia izatea ez dela egokia. Hori dela eta, diagnostiko-txostenak honako hau proposatu zuen: 16^a. *“Data, prestazioa eskatzeko ezintasuna ezarrita dagoen urtebeteko epea zenbatzeko, prestazioaren ordainketa eteten den datarekin bat etortzea”*

Azaldutako guztia dela eta, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak honako iradokizun hau egin nahi dio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

Iradokizuna

Arartekoak Lanbideri iradoki nahi dio indarrrik gabe utz dezan prestazioak eteteko ebazpena, erakunde honek uste baitu posiblea izango zatekeela enplegu-eskaera berri zedin epez kanpo onartzea kasu honetan, eta, horrenbestez, iraungitze ebazpena berrikusi dezan ere iradoki nahi dio.





Horrez gain, prestazioaren etenaldia murriztu dadin, Arartekoak *Diagnostikotxostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017 izeneko agirian jasotako gomendioa egiten dugu berriz ere: "Data, prestazioa eskatzeko ezintasuna ezarrita dagoen urtebeteko epea zenbatzeko, prestazioaren ordainketa eteten den datarekin bat etortzea".*

